



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokira iritsiko da *As One*, Laura Kaminsky-ren opera transa, nork bere burua ezagutzeari buruzko kantu lirikoa, Marta Eguiliorrek zuzendutakoa

- Enrique Sánchez-Ramos baritonoa Hannah Lehen - *Before* da, eta Inés Olabarria-Smith mezzosopranoa Hannah Gero - *After*: bi ahots, protagonista transgenero bakar baten zatia partekatzen.
- Carlos Calvo Tapia ikuskizunaren zuzendaritza musikalaz arduratzen da, eta Bauhaus Laukotea harietan egongo da.
- *As One* Teatro Españolen eta Marta Eguiliorrek ekoitzi dute, Arriaga Antzokiaren lankidetzarekin, eta bertan antzeztuko da ostegunean, martxoaren 18an, 19:00etan.

Bilbao, 2021eko martxoaren 15a. – Ostegun honetan, martxoaren 18an (19:00etan), Arriaga Antzokian *As One* ganbera opera izango dugu, **Laura Kaminsky**ren konposizio zoragarria, **Mark Campbell** eta **Kimberly Reed**-en libretoa duena eta Bilbora iritsiko dena, **Marta Eguilior** bilbotarrak zuzendutako muntaiari esker. Berak ekoitzi zuen ikuskizuna Teatro Españolekin (Madril) batera, eta Naves Mataderon estreinatu zen joan den irailean, arrakasta handiz eta ikusmin handia sortuz, lehen opera transtzat hartzen baita.

Izan ere, *As One* ganbera opera bat da, non bi ahotsek, Hanna Lehen - *Before* (**Enrique Sánchez-Ramos** baritono madrildarra) eta Hanna Gero - *After* (**Inés Olabarria-Smith** mezzo-soprano bilbotarra), protagonista transgenero bakarraren zatia partekatzen duten. Hannahren ikuspegiaren bidez aurkezten da obra hau, nork bere burua ezagutzeari, benetakorioraren bilaketari eta norberari fidel izateari buruzkoa. Hannah gizaki autokritikoa da, batzuetan bere baitara biltzen dena, dibertigarria, azkarra eta erantzunak behar dituena. Opera honetan bere odisea ikus dezakegu, gaztarotik helduarora; gizakion istorio unibertsal bat da, bi ahots solistek oholtzara eramango dutena, **Bauhaus Laukotea** hari-instrumentuen talde bikaina lagun dutela. Ikuskizunaren zuzendaritza musikalaz **Carlos Calvo Tapia** arduratuko da.

Enpatiaz eta umorez, artistek hamabost abesti interpretatzen dituzte, narrazioa hiru ataletan banatuz. Hannahren bizipenak erakusten dituzte: hiri txiki batean bizitako gaztaroa, unibertsitate urteak mendebaldeko kostaldean eta, azkenik, Norvegiarako bidaiak, non Hannah harritu egingo den bere buruaz ikasten duenarekin.

Aipatzekoa da Eguilior gazteak egindako lan artistikoa, zuzendaritza eszenikoa eta eszenaratzearen diseinua batzeko eta uztartzeko izan duen gaitasunagatik. Eszenografiak eta argiaren kontzeptuak arduratzen da beti, eta parte hartzen duen ekoizpen guztietan eszenaren eta estetikaren integrazioa aipagarria lortzen du. *As One*

horren beste adibide bat da, eta horren adibide izan zen ere 2019ko martxoan Arriagan ikusi ahal izan genuen F. Poulenc-en *La Voz Humana (La Voix Humaine)*.

Transgenero pertsonen adorea

Egia onartzeko adorea behar da, eta egiaren bilaketa horrek erronka sakonak dakartza, transgeneroek aurre egin beharrekoak bezalakoak, normalean, onartzen ez dituen mundu batean, gainera; ezjakintasunez eta gorrotoz betetako mundu batean. Laura Kaminsky konpositoreak deritzo operak balio behar duela gizaki gisa elkartzeko balioko diguten istorioak kontatzeko, eta esperientzia partekatu bat sortzeko, zeina, musikaren eta hitzen bitartez, transzendentea eta eraldatzailea izatera hel daitekeen. *As One*, beraz, mundua kontzientziatzeko loratzen da, aniztasunaren, askatasunaren eta norberaren bilaketaren inguruan.

Egile prestigiotsuak

As One obraren konposizioaren eta idazkuntzaren atzean dauden izenak nazioarteko lehen mailako pertsona ospetsuak dira. Laura Kaminsky "musika klasikoaren 35 konpositorerik aipagarrien artean dago" *The Washington Post*-en arabera; bere obrak "magistralak dira", *San Francisco Classical Voice*-en arabera, eta "suz eta izotzez beteak, disonantzia eta indarkeria edertasun tonalarekin eta gogoeta meditatiboarekin kontrastatzen baititu. Indar handiko obrak dira", *American Record Guide*-n arabera. *As Onen* partitura, edertasun ukaezinekoa, bere mailaren adibide bat da.

Gainera, libretoa bi egile bikainek idatzi dute. Mark Campbell libretista eta abesti idazlea Pulitzer sariaren eta Grammy sari baten irabazlea da, Estatu Batuetako opera garaikidearen abangoardian dago, eta opera libretoen, musikalentzako letren, abesti zikloetarako testuen edo oratorioen katalogo zabal baten egilea da. Berarekin batera, libretoa idazten jardun du ere Kimberly Reed zinema zuzendari eta idazlea; berak ere ibilbide aipagarria du, aintzatespen handikoa, eta, besteak beste, honako dokumental hauek egin ditu: *Prodigal Sons (Seme oparoak)*, 14 sari jaso zituen, edo *Dark Money (Diru iluna)*, Sundanceko Zinemaldian saritua eta Oscar sarietarako izendatua.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 12 eta 25 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

As One

Zuzendaritza: **Marta Eguilior**.

Musika: **Laura Kaminsky**.

Libreto: **Mark Campbell eta Kimberly Reed**.

Zuzendaritza musikala: **Carlos Calvo Tapia**.

Abeslariak: **Inés Olabarria-Smith, Enrique Sánchez-Ramos**.

Musikariak: **Bauhaus laukotea**.

Espazio eszenikoaren diseinua: **Marta Eguilior, Alejandra Requeijo**.

Argiztapenaren eta bideoeszenaren diseinua: **David Bernués**.

Jantzien diseinua eta karakterizazioa: **Rebeca Calvo**.

Zuzendari laguntzailea: **Ruth Rubio**.

Teatro Español eta **Marta Eguilior**ren produkzioa, **Arriaga Antzokiarekin** lankidetzan.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus